

Noaia!!!

www.noaia.com



Jendetza bildu zen Usurbil Cup txapelketako finaleran



Igandean, giza-proba: Usurbil Vs. Aginaga





MAHUKA

arropa denda

Eskualdatzeagatik

eskaintza berezia

UZTAILAK 1etik aurrera

-%50

etxebeste 3

943 361 106



 twitter.com/noaua

 facebook.com/noaua

 youtube.com/noauatb

 noaua.com

Oporretan ... Kanariasera!

Maspalomasen (Kanaria Handia)

2/3 pertsonentzat apartamentu bat
alokatzen da, igerileku duen urbanizazioan

(*etxe esparrua ikusteko www.playmar.com*)

Uztaila, abuzta, iraila eta urria.

MasPalomas itsasargitik eta Ingelesaren
hondartzatik ordu erdira. Erdialdean,
Yumbo zentru komertziala 5 minutura.

informazioa: 609 75 47 99

Albistea iruditan!!

Txipik amaitu du bere taxi gidari ibilbidea

Asteazkenean ekainak 30 Antonio Tolaretxipik, "Txipi" bere azken lan eguna zuen Mikel Laboa plaza ondoan kokatua dagoen taxi geltokian. Urte luzez Usurbilgo herritarrak noranahi eraman dituen taxi gidariak amaitutzat eman du bere lan ibilbidea. NOAUA!-ren bidez bezeroez agurtu nahi izan du Txipik. "Hainbat urtetan bidelagun izan ditudan bezero guztiei, eskerrak emanez agurtzen naiz".

Taxi lizentzia salgai dago orain. Interesdunek Gipuzkoako Taxi Elkartearen eskura dezake informazio gehiago eta eginbeharrekoen berri. Telefono zenbakia honakoa da: 943 465 498.



TAXI LIZENTZIA SALGAI DAGO ORAIN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

UDAN, EUSKARA IKASTEKO AUKERA _____ **5. OR.**

LANEAN DA BERDINTASUN TEKNIKARIA _____ **8. OR.**

GIZA-PROBA, JAIETAKO DESAFIOA _____ **10. OR.**

SAN JOAN FESTAK, IRUDITAN _____ **12. OR.**

PIRINIOETARA DOAZ ANDATZAKOAK _____ **13. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



AITOR LANDALUZE

Piztu dezagun

Uda piztu da, berarekin batera eguzki loreak sortuz eta hostoak berdetuz. Piztu dira umeak herriko bazterrak algaraz betez, txoriak, eta xomorroak ere baten batek piztu ditu. Piztu da txupinazoa, piztu dira Juan, Pedro, Martzial, Ixabel, Fermin eta beste santu parrandero guztiak ere. Piztu dira erraldoiak, dultzaina eta gaitekin alde batera eta bestera jiraturaz dantza eginez. Piztu dira buruhandiak ere, tximu txuria, deabru gorria, behia, pailazo eta abar guztiak, maskuriak ere piztuko dira baten batzuen bizkarretan. Piztu dira txosnak, kañeroak, kamarak eta musika ekipoak belarriak piztu nahian.

Piztu dira barrakak, tiobiboen kotxe kamioi eta motoen sirenen burrunbekin batera, autotoxokeen musikak eta txotxonen tonbolak. Nola ez urteroko gaztelu puzgarriak, futbolen erraldoi, txu-txu trena eta bestelako tramankulu dibertigarriak. Plazan ere baten batek mikrofonoak piztuko ditu, gitarrak eta bateriak ez dira faltako entzule-ikusleen gorputzen erritmoak piztu nahian.

Oilasko biltzaileek goizean goiz piztuko dituzte etxa-

fuegoak, trikiti eta panderoak, baserriz baserri oilaskoak itzaltzeko. Piztuko da sua zikiroak prestatzeko eta honek gosea goxo-goxo pizteko.

Danborrak ere piztuko dira, haurrenak, helduenak... kalez kale jaiak piztu direla jabetu ez dena kontura dadin. Harrijasotzaile, pilotari, aizkolari eta bestelako indartsuak ere piztuko dira, interruptoreari sakatuz indarra askatu, nik non edukiko ote interruptore hori? Piztuko dira tronboiak, saxoak, tronpeta, atabalak, bonboak eta txaranga, Zanpazarrak ere eta herriko dantzariak ez dira faltako.

Bertsolariek ere badute zer piztu, irudimena, mingaina, eta hauen bertsoek zaleen txaloak eta txaloak bertso gehiago eta...

Piztu daitezela ere urrutiratu dizkiguten lagun biihotzak, hemen ez egon arren gurekin izango baitzaretzue, zuekin gogoratzea debeku bihurtu duten arren zuek pizten ere saiatuko gara.

Bukaeran maskota ere piztuko dute, eta maskota piztean... Piztu dezagun beraz jai herrikoia, herrikoia ez bada ez baita jaia izango!

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZECO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: uztailak 9. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztailak 5.

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47, Behea A.
20170 USURBIL

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

© 663 08 76 71 • 943 24 34 65

AEK-k prest du udako eskaintza, “mihi puntan duzuna” ateratzeko

AEK-k eskaintza oparoa pres-tatu du udan euskara ikasten hasi edo jarraitzeko, edo ikasitakoa praktikatzeko. Hortxe-hortxe izaten den ditxosozko aditz hori gogora ekartzeko, edo hanka sartzeko beldurrez esan gabe geratzen den hitz hori botatzeko ordua da. Beldurrak edota lotsak albo batera utzi eta AEK-k, uda honetarako, “mihi puntan duzuna” ateratzeko gonbitea egiten die udan euskara ikasi nahi duten guztiei.

Urtero bezala, AEK-k aukera ezberdinak eskaintzen ditu uztailean, abuztuan edota irailean, euskaltegi eta barnetegietan euskara ikasi eta praktikatzeko. Dena dela, aurten bada berrikuntza pare bat.

Alde batetik, lehenengo aldiz antolatu dira jarduera barnetegiak, eskola orduz gain, sukaldaritza, bertso-gintza, antzerkigintza, dantza, pilota, abentura kirola... tailerrak egiteko.

Bestetik, lehenengo barnetegi ibiltaria egin zela hamar urte betetzen direla eta, aurten, bizikletaz egiten den betikoaz gain, lehenengo aldiz burutuko da oinez egindakoa ere. Biek ala biek



AEK-KO IKASLEAK, ARANTZAKO (NAFARROA) BARNETEGIAN.

eskaintzen diete ikasleei Euskal Herriko lekuri ederrenak ezagutzeko aukera, mintzapraktika egin bitartean.

Xiberera ikastaroa

Horiez gain, urtero bezala, euskalduntze barnetegiak daude euskara opor giroan ikasi eta hobetzeko; baita familia barnetegiak ere, haur eta gurasoentzako aparteko oporraldia, euren artean euskaraz aritzeko ohitura sortu eta sendotzeko; eta xiberera ikastaroa, Zuberoako euskalkia ikasteko.

Bestalde, ikastaro trinkoak euskaltegietan eskaintzen dira, etxetik hurbil euskara ikasteko, urtean ikasitakoa hobetzeko, edo maila ofizialak edo EGA/3. maila lortzeko.

Ikasteko aukera ugari

AEK-k aukera ezberdinak eskaintzen dizkizu uztailean, abuztuan edota irailean, euskara ikasi eta praktikatzeko.

Ikastaro trinkoak

Etxetik hurbil euskara ikasteko, ikasitakoa hobetzeko edota maila ofizialak, 3. maila/EGA barne, lortzeko.

Euskalduntze barnetegiak

Udan euskara ikasteko eta hobetzeko modurik politena.

Familientzako barnetegiak

Guraso eta seme-alaben artean euskaraz aritzeko ohitura sendotzeko.

Jarduera barnetegiak

Sukaldaritza, bertso-laritza, antzerkigintza, dantza, pilota, abentura kirola... Eskolaz gain, gustuko gauzak egin bitartean euskara praktikatzeko.

Barnetegi ibiltariak

Mintzapraktika egin bitartean Euskal Herriko lekuri ederrenak ezagutzeko.

Xiberera ikastaroa

Euskalkia ikasteko ikastaroa.

Informazio gehiago: 902 362294

Datorren astelehenean, odol-ematea

Usurbilgo Odol Emaileen elkar-teak odola emateko deia egin du. Adierazi dutenez, “jaien ondoren bizimoduak aurrera jarraitzen du, eta gure ekintza honetan ezin dugu atsedetik hartu”. Ohi bezala, anbulatorioan egingo da odol ematea, astelehenean arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara.

Odol Emaileen elkartekoek jakin badakite jendea festetan pentsatzen dagoela egun hauetan. Baina odola emateak duen garrantzia nabarmenduz, datorren astelehenerako deialdiaren berri eman nahi dute: “herriko festa datoz, eta desio diegu herritar guz-

tiei benetan ondo igarotzea jai egun hauek. Jaien ondoren bizimoduak aurrera jarraitzen du, eta gure ekintza honetan ezin dugu atsedetik hartu. Seinale ona izango litzateke gure eginkizun honen beharrak ez izatea, baina eguneroko beharrak deika dihardu”.

Uztailaren 5ean astelehena, beraz, odol-ematea izango da Usurbilen, arratseko 19:00etatik 21:00etara, herriko anbulatorioan.

Herritar guztiei irekia dago deialdi hau. Osasun arazorik ez izatea da gutxieneko baldintza.

Odol-ematean medikuak eta erizai-nak izaten dira arazo edo kezka guztiak argitzeko.

Maixu-etxeko alokairuko etxebizitzetarako 11 eskaera onartu ditu Udalak

Udarregi ikastola ondoan, Gernika ibilbidea 13an kokatzen dira Maixu-etxe izenez ezagutzen diren sei etxebizitzak; Udalak alokairu sozialera bideratu dituenak.

Udaberrian egin zen maizterrak aukeratzeko lehiaketa. Herritarrek aurkeztu zituzten eskaeretatik hamai-ka onartu ditu Udalak. Udaletik berri ematen dutenez, aurrerago zehaztuko da sei etxebizitzak esleitzeko zozketa noiz burutuko den.

Italiatik ekarritako hainbat ondorio (II)

“Gaikako bilketa Italian, legez, derrigorrezkoa da”

Baikorra, aberasgarria eta zer ikusi eta ikasia izan dutela diote atez ateko informazio bulegotik eta Jarraipen Batzordetik; ekaina hasieran Italiako hondakin kudeaketa ereduak ezagutzen izan zen ordezkariak. Jasotako irakasgaien artean honakoak aipatzen dituzte: murrizketaren aldeko politikak, tasa justua, eta atez ateko bilketa bultzatzeko legedi eta diru-laguntzak.

NOAUA! Italiako ereduaren inguruan, zer ezaugarri azpimarratuko zenituzkete?

Joxe Mari Irazusta. 1997az geroztik helburu eta prozedura oso zehatzak jarri dituzte. 2006-12 urte arteko gaikako bilketari lotutako erronkak oso garbi daude: 2006an, %35, 2008an %45 eta 2012an %65. Gaikako bilketa Italian legez derrigorrezkoa da, ez da galdetzen. Erronka horietara ailegatzen ez diren udalerriek zigor ekonomikoak dituzte.

JOXE MARI IRAZUSTA

“Italiarrekin alderatuz, bilketan usurbildarrak askoz eraginkorragoak gara”

Kutsatzen duenak ordaindu behar du, ingurumenaren aldeko ahalegina saritu egiten da. 2008an Piamonteko erregio guztian, baziren 176 herri %45eko helburura iritsi ez zirenak. Guztien artean ordaindu behar izan zuten zigor ekonomikoak dirutza eragin zuen, milioi bat euro. Jasotako dirua ingurumenaren



ITALIAN IZAN DIREN UDAL ORDEZKARIAK ETA GIZA MUGIMENDUETAKO KIDEAK.

aldeko plangintzeara bideratu zuten. Bestalde, han atez atekoa ekonomikoki askoz merkeagoa da. Eta autokonpostajea derrigorrezkoa, ezaugarri batzuk betetzen dituzten banakako etxebizitzetan. Alternatiba berriekin norabidea aldatzea lortu dute. Laster, erraustegi eta zaborteegi handiak beharko ez dituzten eskenatoki batean egongo dira.

Mikel Ikatzategi. Tresna egokiak erabili dituzte helburu zehatzak lortzeko. Italian legeak markatzen du egin den guztia. Horrek eragin du sistema egokia, ate atekoa bilatzea eta helburu batzuetara iristea. Baina legeak markatutako helburuak beteta, ez dute lan gehiegi egin hobetzeko.

Irati Portu. Atez ateko bilketa sistema zer zabala eta malgua den ikusi dugu Italian.

N. Usurbilgoarekiko zer alderaketa egin ditzakezue?

Ainhoa Arrospide. Dirulaguntza asko dituzte bilketa, kanpaina, inplantazio, edota konpostaje plantetarako. Gurean legedi eta dirulaguntzekin nora iritsi eta zer parametrotan jarriko liguketen kontuan hartzekoa da.

J. M. I. Desberdintasun sakon bat dugu haiekiko, bilketan usurbildarrok askoz eraginkorragoak gara. Hainbesteko babes legala izan ez arren, ondo kokatuta gaude aurrerabidean beste urrats berriak emateko. Eta jendeak gurean izan duen konpromisoa sekulako balorea da. Organikoa biltzeko dugun metodoak ahalbidetzen du, gero tratamendua askoz merkeagoa eta kalitatea hobea izatea. Bestalde, Italian alderdi politikoen artean ez dute hondakinen gaia elkarri mokoka

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

“Garbigune eraginkor bat behar dugu herrian”

jarduteko gai bihurtu. Hori hemen gertatuko balitz, beste eskenatoki batean egongo ginatke, ziur.

I. P. Abiapuntua desberdina da, horrek dena aldatzen du. Usurbilen herritik sortu den behar bati erantzun zaio, behetik gora. Herritarren laguntza ezinbestekoa izan da eta komunikazioaren alderdiari izugarritzko garrantzia eman zaio. Italia mailan lege bat jarri zen, goitik behera aplikatu dutena. Legeak betetzekegin den sistema bat da.

AINHOA ARROSPIDE

“Italiatik legedia, diru laguntzak, tasa justua eta hondakinak murrizteko erabakiak ekarriko nituzke”

N. Italiatik zer ekarriko zenukete Usurbila?

A. A. Legedia, diru laguntzak, tasa justua edota hondakinak murrizteko erabakiak. Erreusa aztertu behar da.

J. M. I. Usurbilen historian izan den prozesu partehartzaile handiena eman da



ATEZ ATEKO BULEGOA ARTZABALEN DAGO DRAIN.

gai honekiko, erabaki guztiak oso argi eta gehiengo handiz hartu dira. Atez ateko bilketa muturreraino eraman behar dugu.

Oso herri autokonpostatzailea da, baina oraindik badaude aukerak. Gune urbanoan ere aztertu behar da, konpostaje komunitarioaren aukera. Garbigune

eraginkor bat behar dugu herrian. Hemen hondakin murrizketan askoz gehiago eragin genezake.

Tasa justuaren norabide horretan jarri behar ditugu hurrengo urratsak. Gaikako bilketan guztiok egiten dugun ahalegin hori bakan batzuk honda ez dezaten inplikatu behar gara herritarrok.

Oriako itsasadarra babesteko neurriak

Oriako itsasadarra Natura 2000 Sarean egonik, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Saila babeserako helburu eta neurriak zehazten ari da egun haue-tan.

Oriako ibaia usurbildarren natura ondare izanik, eta parte hartze prozesua interesdun orori zabalduta dagoenez, orain da ekarpenak egiteko aukera.



ITSASADARRA BABESTEKO, PARTEHARTZE PROZESUA IREKI DA.

Informazio gehiago www.usurbil.net webgunean topatuko duzue.

Grebaren eragina hondakin bilketan

Euskal Herriko gehiengo sindikalak astearte honetarako deitu zuen greba eguna dela eta, ez zen atez ateko bilketa zerbitzurik izan. Plastikoa eta ontziak biltzen dira asteartetan eta ostiraletan. Ostiral honetan, uztailearen 2an bilduko da aipatu hondakin zatia.


ARRANDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
TIF 36 21 64
USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
EIRA KUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK


txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Clara Wolfram,

berdintasun gaien ardura izango duen udal teknikaria

Udalak berdintasun teknikari lanpostua sortu du; Clara Wolfram izango da aurrerantzean, gizon eta emakumeen aukera berdintasunen alorra jorratuko duen udal langilea. Atzerapenik ez bada uda amaieran, Elhuyarrek eta Udalak azken bi urteotan landutako berdintasun alorrari buruzko plana osoko bilkurara eramatea aurreikusia dago. Teknikari berriarentzat, udazkenetik aurrera ekimenak bideratzen hasteko lan tresna izango da udal ordezkariak bozkatu beharko duten dokumentua. Wolframek bere lanpostutik bete asmo dituen erronken berri eman dio NOAUA!-ri.

NOAUA! Zertan datza berdintasun teknikari baten lanak?

Clara Wolfram. Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren alde arloka eragitean. Gaur egun gizon eta emakumeak arlo bakoitzean zer egoeratan gauden eta berdintasunaren helburua lortzeko zer egin dezakegun ikustea. Zer egin dezakegu gizon eta emakumeen behar eta interesak neurri berean kontuan hartzeko udal jardueretan?. Usurbil jendarte batean dago kokatua, eta jendarte horren tradizioa sexista izan da eta oraindik hainbatetan sexista da.

N. Udalak eta Elhuyarren arteko elkarlanean kokatu behar dugu udal lanpostu honen sorrera. Zure gain egongo da prozesu hari jarraipena ematea. Zertan da?

Ainara Uribe. Lehenbizi diagnostiko parte hartzailea egin zen Elhuyarrekin. Ondoren, plan parte hartzaile bat izan zen, aurretik ukitutako jendearekin eta arlo eta esparru desberdinetako jendearekin, bai udal eta herri mailan. Udal gobernutik argi genuen legegintzaldi honetarako berdintasun teknikaria kontratatu behar genuela eta orain gure artean Clara dugularik, plana martxan jartzeta izango da ondorengo urratsa.

C. W. Une honetan prozesu parte hartzaile batetik sortutako dokumentu bat dugu.

N. Zuentzat oinarria izango dena?



AINARA URIBE ZINEGOTZIA ETA CLARA WOLFRAM BERDINTASUN ARLOKO UDAL TEKNIKARIA, UDALETXE ATARIAN.

C. W. Lan tresna. Orain, plan hori erresatzen ari naiz udal teknikariek; plan horretako helburuak banaka aztertzen, ekintza guztiak nola garatzen ahal diren ikusten... Espero dugu udan plana onartua izatea, ziur aski irailean, eta udazkenetik aurrera, planean agertzen diren hainbat ekintza martxan jartzea. Arlo bakoitzean teknikariek hasi beharko dugu aztertzen, arlo horretako jarduerak nola eragiten dieten gizon eta emakumei. Besteak beste, hainbatetan, eta Usurbil zein inguruko herriak ez dira salbuespenak, emakumeek bikotekide edo bikote lagun ohiaren indarkeria jasaten dute.

LAGUNTZA EZBERDINAK

“Hiru laguntza mota daude: laguntza psikologikoa, larrialdietarako laguntzak eta harrera-etxebizitzak”

Kasuotan, zer arreta ematen ari garen, koordinazioa ahalik eta hobereana ote den ikusteko ekintzak daude planean. Baita indarkeria mota hori prebenitzeko ekintzak ere.

N. Prebentzioari lotuta, genero indarkeria kasu batean aurrean, zer egin dezake biktimak edo haren gertukoek?

C. W. Gertuko norbait indarkeria jasa-

ten ari dela sumatzen badugu, lehenik eta behin, aholkua eman baino lehen entzun behar dugu, toki lasai batean, eta ahal bada ez erasotzailearen aurrean. Kontuan hartu behar dugu emakumeen aurkako indarkeria ez dela soilik fisikoa, askotan batez ere psikologikoa da. Indarkeria da emakume bat kontrolatu nahi izatea, bere mobila kontrolatzea, bere deiak eta mugimenduak kontrolatzea, lagunekin harremana oztopatzea. Kontrola jasaten ari diren emakumeak askotan autoestimua oso lehertua dute, eta beldurra diote bikoteari, bikotearen haserraldiari. Egoera horretan normala da emakumea saiatzea gizonaren biolentzia ekiditen, kontrolpean bizitzen. Hori indarkeria egoera bat da, eta emakumeak laguntza behar du egoera hartatik ateratzeko, laguntza psikologikoa eta inguruko laguntza. Indarkeria jasaten ari dela ulertu behar du, eta horretarako informazioa behar du, Gizarte zerbitzuetan edo epaitegietan. Hara joateko lagundu diezaiokegu. Egoera larri baten lekuko baldin bagara, udaltzainei edo ertzainei deitu behar diegu berehala. Jaietan edo lagunaren artean indarkeria jarrerak ikusten baditugu, erasotzaileari argi utzi behar diogu bere jarrera ez dela “normala”, eta emakumeari laguntza eskaini. Gipuzkoa mailan hiru laguntza mota daude: laguntza psikologikoa, larrialdietarako dirulaguntzak eta harrera-etxebizitzak.

“Gauzak aldatzen doaz, baina egun ez dago orekarik”

NOAUA. Iraila aldera onartuko da plana. Orduan abiatuko dituzue lehen egitasmoak?

Clara Wolfram. Orain, plana erabat lotu, eta herriko jendea ezagutzeko jaieran ibiliko naiz. Planaren baitan, asmoetako bat, Berdintasun Kontseilu bat sortzea legoke, gaia interesatzen zaion jendearekin, berdintasunaren alde edo sexismoaren aurka lan egiteko gogo pixka bat dutenekin. Herritarren foro bat sortu nahi da, noizean behin biltzeko eta ikusteko zertan ari garen, zer egin ahal den herri honetan aukera berdintasunaren alde eragiteko. Udazkenean bestalde, arlo honetako formakuntza landuko da.

PARTE HARTZEAZ

“Historikoki espazio publikoan gizonak bakarrik parte hartzea normalizat jo izan dugu beti”

N. Udal ekitaldietan ere aukera berdintasuna kontuan hartzea bultzatu nahi duzue. Zeintzuk dira kontuan hartuko diren irizpideak?

C. W. Adibidez, jai egitarauan bezala, interesgarria da, herriko jardueretan

ikusi ahal izatea ia gizon edo emakumeek parte hartzen duten. Interesgarria da azalratzea, zertan aritzen diren gizonzkoak edo emakumezkoak baina bakarrik. Historikoki espazio publikoan gizonak bakarrik parte hartzea normalizat jo izan dugu beti. Interesgarria da ikustea gizonen eta emakumeen interesen araberrako adina gauza antolatzen diren, eta ea gizon eta emakumeek protagonismo berdina duten herriko jaieran, kirol eta kultura jardueretan... Garrantzitsua da, azken finean neska mutilak ez dira ikastolan soilik hezten, errealitatean hezten dira. Errealitateak esango die zertan aritzen ahal den neska bat, zertan ez. Zer den posible neska batentzat, mutil batentzat. Erreferenteak garrantzitsuak dira.

N. Etorkizunean berdintasuna lortuko bada, zer baldintza bete beharko liriteke?

C. W. Berdintasun hori lortuko balitz, ez litzateke lortuko emakume eta gizonak berdina izanda, emakume eta gizonak jendartean balorazio berdina izanda baizik. Egoera aldatuko litzateke, aukera berdina izango genituzke garrantzi berdina izango genuelako jendartean. Aldaketa prozesuan gaude. Gauzak aldatzen doaz, baina egun ez dago orekarik.



CLARA WOLFRAM JATORRIZ
ALEMANIARRA DA ETA EUSKARAZ
OSO ONDO HITZ EGITEN DU.

Gizonezko bat atxilotu zuen Ertzaintzak joan den astean

37 urteko gizonzko bat atxilotu zuen Ertzaintzak joan den astean, genero indarkeriari lotutako delitu bategatik. Ekainaren 23an arratsaldeko 19:00etan Ertzaintzak Usurbilgo emakume baten deia jaso zuen. Bere bikotekideak eraso egin ziola azaldu zuen. Ertzaintza gertaera lekura hurbildu zenean, emakumeak aurpegi, lepo eta beso batean ubelduak zituela ikusi zuten. Emakumeak berri eman zenez, bikotekidearekin eztabaidatu ostean, honek emakumea astindu, kolpatu eta lurrera bota zuen. Ertzaintzak prentsa ohar bidez publiko egin duenez, gizonzkoak egindakoa onartu eta atxilotuta eraman zuten. Emakumea, zaurituta anbulantzian Donostia ospitalera. Genero indarkeriaren biktima direntzat, telefono bidezko honako arreta zerbitzuak eskuragarri daude: 112 (SOS Deiak, 24 ordu), 900 840 111 (Emakumeen kontrako indarkeriako telefono-arreta, Eusko Jaurlaritzak) eta 943 377 110 (Usurbilgo Gizarte Zerbitzuak).

Berdintasun alorreko erronkak, aurrera begira

Bideratuko diren ekintzekin zer lortu nahi da?

- Emakumeen autonomia bultzatzea.
- Lan ordaindua eta familia ardurak bateratu ahal izatea.
- Indarkeria sexista jasaten duten emakumeen egoera hobetu eta halako egoerak prebenitzea; arreta, koordinazioa...

Herrian burutzen diren ekintzak, arloka aztertu (kirol edota kultur arloko jarduerak):

- Zertan parte hartzen duten neska-

mutilek.

- Interes berdina al dituzten.
- Interes desberdina neurri berean kontuan hartu eta bultzatzeko zer egin.

Berdintasun teknikariarekin hartu-emanetan jartzeko:

Ordutegia: asteazken, ostegun eta ostiraletan, 10:00-14:00.

Lekua: udal erregistro ondoko bulegoa.

E-posta: berdintasuna@usurbil.net

Aginaga eta Usurbilen arteko desafioa

Hogei minutuz mila kiloko harriarekin zenbat plaza egin. Hortxe dago Santixabeletako azken egunean, Aginaga eta Usurbilgo bi kirolari taldeak aurrez aurre jarriko dituen desafioaren gakoa. Azken prestaketa lanetan murgilduta daude bi taldeak. Bi zortzikoteak aurkariak baino emaitza hobea lortzea dute helburu. Dena prest dago jada; plaza, materiala, taldeak...

Desafioa hastea baino ez da falta. Nor gailenduko da uztailearen 4ko erronkan? Egin apustuak.



Aginagako taldea



Usurbilgo taldea

Herrian sortu berri den Saiatuz Elkarteak Santixabel hauetarako zenbait ekitaldi antolatu ditu. Harrijasotze erakustaldia, Usurbilgo aizkolariaren norgehiagoka eta igande arratsalderako, idi-probarekin batera, Usurbil eta Aginaga aurrez aurre lehia bizian jarriko dituen giza-proba. Joan den urte amaieratik datorren desafioa prest dago, eta bi taldeetan giroa gori-gori.

Aginaga, serio prestatu da

Urtezahar gauean jaso zuten desafioaren berri aginagarrek. "Ia Usurbilen aurka egingo genuen proposatu ziguten. Zubietarrak ateratzen baziren baietz, egingo genuela erantzun nion", adierazi du Oskar Santamariak. Gerora Zubietako ordezkariarik bildu ez arren ideiarekin aurrera egitea erabaki zuten. Hilabetera Santamaria eta Abbat Maioz giza probarako partaide bila hasi ziren. Zortzikotea osatu ostean, joan den Aste Santuko oporraldiaz geroztik gogor aritu dira lanean. "Entrenamendu gogorak egin ditugu, proba ez dugu arinke-

riaz hartu. Serio entrenatu gara", adierazi du Oskarrek.

Oskar Santamaria, Aginaga: "Irabaztera goaz"

Dema plazara guztia ematera datoz igandean. Galtzen badute, hau berdinketa bat baino ez dela izango gogorarazten dute aginagarrek. Ez baita ahaztu behar, usurbildarrek beste proba batean indarrak neurtu zituztela joan den San Ixidro egunean. Orduko hartan, Santamariak eta bere taldekoak nagusitu ziren. Oraingoan ordea, Usurbilgoek plaza gehiago egingo dituztela uste dute, Oskarren esanetan, "pisuz, esperentziaz eta indarrez gehiago dira eta". Baina adi ibili beharko dute usurbildarrek, Aginagatik euren indar gune nagusia zein den gogorarazten baitute: "esperantz handirik ez dugu, baina kaskagogorak gara eta irabaztera goaz". Jai giro polita sortuko dela iragartzen dute, eta Aginagako bizilagunak giza-proba ikustera deitzen dituzte. "Ahal bezain beste aginagar joan daitezela orro egitera", animatu ditu Santamariak.

Igandeko desafioa datuetan

Giza-proba: Usurbil-Aginaga.

Eguna: uztaileak 4 igandea.

Ordua: 18:00.

Tokia: Dema plaza.

Antolatzailea: Saiatuz Elkartea.

Usurbilgo zortzikote taldea

Iurgi Mendiluze, Alex Udabe, Iñaki Portularrume, Berdaitz Larrarte, Gabi Sarasola, Zuhaitz Oliba, Aiert Uzkudun eta Aimar Zuloaga.

Aginagako zortzikote taldea

Oskar Santamaria, Abbat Maioz, Jon Lizaso, Josu Ostolaza, Imanol Esnaola, Mikel Errasti, Iban Arruti eta Igor Pagola.

San Ixidro egunean Aginagak irabazi zuen

Jaietako proba hau buruan ez zutela hasi ziren usurbildarrak entrenatzen orain hilabete batzuk. Orduan, Santixabeletako desafioa zurrumurru hutsa baino ez zen. “Zerbait egiteagatik hasi ginen”, adierazi du taldeko kide Alex Udabek. Iaztik osatua zegoen taldea zenbait kideek utzi eta partaide berriak bildu zituen, Aginagarekin Santixabeletan desafioa izango zutela jakin zutenean.

Udabek adierazi duenez, serio entrenatzen, “berez hilabete pare bat gabiltza”. Giza proban parte hartuko duen zortzikoteak batera lehen entrenamendu saioak joan den astean burutu zituen.

Aginagakoak gaizki dabilzala helarazi diete usurbildarrei. Baina Udabe ez da hain ziur agertu, ez du argi ikusten, justu kontrakoa delakoan dago.

“Beste bide batzuetatik jakin dugunez, ikaragarri ondo dabilzta”, adierazi du zubietarrak. Aginagarren pare ez du ikusten bere taldea Alexek. Bere esanetan, “luze egingo zaigu. Ondo ibiltzeko ez gara prestatu”.

Egoskorrak

Halere, bere esanetan, badu taldeak indar gune bat eta horretan bi taldeak paretsu dabilzala esan behar: “Egokortasunagatik egiten dugu, bestela honez gero etxean ginen”, gogorazi du Udabek.

Kontuan hartzeko faktoreak

Aginagarren moduan, aurkariek baino plaza gehiago egitea da usurbildarren erronka nagusia. San Ixidro eguneko desafioa Aginagakoek irabazi zutela ez dute ahaztu. Honenbestez, emaitza berdintzea izango da usurbildarren giza-probako helburu nagusia.



LEHENBIZI NORK BURUTUKO DUEN PROBA, ERABAKIGARRIA IZAN DAITEKE.

Udabek gogorarazten duenez, besteak beste, eguraldia faktore erabakigarria izan daiteke. Baita, nork burutuko duen lehenbizi proba ere.

Bezperan parranda egin arren, Dema plazako proba ikustera deitzen ditu Udabek herritarrak. “Ikuskizunaz gozatu nahi duenak etor dadila Dema plazara igandean. Bezperan parranda egin arren, arratsaldeko 18:00etan da proba. Gazteak mugitu daitezela”, luzatu du gonbita Udabek.

Larunbatean, ikasturteko azken kantu jira

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak udako opor aurreko azken kantu jira egingo du larunbat honetan, Santixaletetan. Iparraldeko Kuxkuxtu txarangak lagunduta ibiliko dira Usurbilgo kaleetan zehar. “Iaz bezalaxe, espero dugu usurbildarren eta kanpotik etortzen zaizkigunen gustukoa izatea”. Larunbatean, uztailaren 3an, goizeko 11:00etan elkartuko dira frontoian.

Kantu jiran, “kantatzea gustuko duen edozeinek har dezake parte”. Herrian zehar kantari ibili ondoren, bazkaltzera joango dira, Askatasuna plazan egingo den Kantu Zikiro Janean.

Entseguak, oporren bueltan

Kantu Jirakoek aipatu dutenez, “Kuxkuxtu txarangakoek banatzen duten liburuxka lehendik duenak ez du berriz erosi beharrik izango, baina



LARUNBAT HONETAN, KUXKUXTU TXARANGAREKIN BATERA EGINGO DEN KANTU JIRAREKIN AMAITUKO DUTE IKASTURTEA USURBILGO KANTU TALDEKOEK.

ez ahaztu ekartzeaz”.

Datorren ikasturteari dagokionez, irailetik aurrera berriro hasiko dira bai kantu entseguekin eta bai Kantu Jirekin. “Horrelaxe erabaki genuen ekainaren 17an egindako bilera ire-

kian. Euskal Kantuen bultzatzaile izanez denbora berean kantuz gozatu nahi duena gonbidaturik geratzen da irailerako. NOAUaren bidez jakinaraziko dugu noiz eta non izango diren kantu entseguak”.


Giro ederra Kalezarren

Bertso eta trikitixa doinu artean piztu zuten San Joan bezperako sua Kalezarren, eta udalerriko beste hainbat lekutan, kea eta suak nonahi ikus zitezkeen asteazken gauetz. Herritarrez bete zen Haur Eskola ondoko aparkalekua. Su gar artera hurbildu ziren bere desioak idaztera hainbat herritar. Baita San Joan eskean irtendakoak ere. Arratsaldetik goizaldera arte, bertsolari eta trikitilariek alaituta, herritik barrena osteratxoa egin zuten eskean irtendakoek.

Amaitzeko, soka dantza

Azken zazpi urteotan egin den bezalaxe, San Joan egunean soka dantza egin zuten Kalezarren. Auzoko bi bizilagun nagusi omendu zituzten: Jaxinta Agirre eta Inaxio Azkoiti. Lore sorta bana eta txapela eta zapia jaso zituzten.

Plaza jendez gainezka zela, arin-arinak eta fandangoak dantzatzuz amaitu ziren jaiak Kalezarren.



JAXINTA AGIRRE ETA INAXIO AZKOITI AUZOKIDEAK OMENDU ZITUZTEN SAN JOAN EGUNEKO SOKA-DANTZAN.

Uda Festa, Gaztelekuren eskutik

13-14 urte arteko gazteei zuzendutako irteerak burutuko dituzte Gaztelekukoek, uztaileko lehen asteen. Usurbil, Zumaia eta Zizurkilgo Gaztelekuak kudeatzen dituen Ostargi Gizarte Elkarrekin antolatu ditu txango hauek, urtero burutzen duten "Gipuzkoa ezagutzen" egitasmoaren barruan. Ekimen honen bidez, udalerririk desberdinetako gazteak elkar ezagutzera bultzatu nahi dute, egun pasa hauen bidez. Kasuan kasuko udalerrira ezagutzeko aukera izango dute, txango bakoitzean antolatzaileek proposatuko dizkieten jokoen bidez.

Irteerak uztailearen 6, 7, 8 eta 9an burutuko dira, Usurbil, Zumaia, Zizurkil eta Donostiara hurrenez hurren. Goizeko hamarretan elkartuko dira gazteak hezitzaileekin eta irteeratik arratsaldeko 18:00ak aldera itzuliko dira. Txangoetara

ogitartekoa eraman beharko du gazte bakoitzak, baita bainujantzia eta toaila ere Zumaia eta Donostiako irteerarako.

Lehen irteera Usurbilen bertan burutuko da uztailearen 6an. Harrera egingo zaie gainerako Gaztelekuetatik datozen taldeei. Hainbat ekintza antolatu dituzte egun horretarako. Goizez, herrian zehar mozturrotutako begiraleak bilatu beharko dituzte. Gaztelekuan bazkalduko dute eta arratsaldean, bi paraxutekin jolastuko dute. Giza futbolina ere jarriko dute frontoian. Irteera hauetan izena emateko epea ekainaren 30ean itxi da.

Larunbatean, Uda Festa

Astebete barruko irteeren aurretik, larunbat honetan uztaileak 3, Udako Festa antolatu dute Gaztelekukoek Santixabel jaien barruan. Ekimena bereziki orain arte Gaztelekura hurbildu diren gaztetxoiei eta haien lagunei zuzendua dago. Lau



LARUNBAT GOIZEAN HASIKO DA GAZTELEKUKOEN PRESTATU DUTEN UDA FESTA.

proba burutuko dituzte. Bi Gaztelekuko hezitzaileek prestatutakoak eta beste pare bat, gazteek proposatutakoak. Uda Festan parte hartzeko gaztetxoek kamiseta bat eraman beharko dute etxetik. Hitzordua larunbat goizeko 11:30etan frontoian.

Pirinioetara, Andatza taldearen eskutik

Urtero bezala, Andatza Mendi Taldeak Pirinioetarako mendi irteera antolatu du uztailaren 10-11 astebururako. Santixabeletako ajea kentzeko primerakoa. Larunbat goizean irtengo dira autobusez Huescako Pirinioetarantz, igande iluntzean bueltatzeko.

Lehen egunean Aisa herritik Aspe (2561m) mendira igotzeko asmoa dute. Ibilbide zirkular bat eginez, jaitzierako bidea aldatu eta Candanchura iritsiko dira. Gaua Candanchu-Canfranc inguruko alberge batean pasako dute; gosaria, loa eta afaria bertan egingo dira.

Igandean, Canfranc-etik abiatuz, Ip-eko lakura hurbilduko dira. Ip-eko zirkua zeharkatu eta Collarada (2886m) gailurra zapaltzekotan dira.

Uztailaren 6an bilera

Joan nahi duen edonork, 20 euroko fidantza ordaindu beharko du Andatza Mendi Taldeko kontu korrontean,



IRTEERA SANTIXABEL ONDORENGO
ASTEBURUAN EGINGO DA.

norberaren izen-abizenak zehaztuz. Ordaintzeko epea uztailaren 6an amaituko da. Egun horretan bertan, arratsaldeko 20:00etan, bilera egingo da Andatzako lokalean irteerarako izena eman duen jendearekin. Bertan zehaztasun gehiago eman eta azken zalan-tzak argituko dira.

Igandera arte, pintura erakusketa Sutegin

Zirri Borro tailerrak, jaietan, Zikasturtean zehar egindako lanak ikusgai jarri ohi ditu. Aurtengo pintura erakusketa asteazkenean zabaldu zen eta, igandera arte, jaiak amaitu bitarte izango da zabalik Sutegin. Ordutegia: goizez, 10:00-14:00. Arratsaldez, 16:00-20:00.

Asteazkenean marrazki lehiaketa antolatu zuen Zirri Borrok.

Akatsak zuzenduz

Joan den ekainaren 25eko Jastekariko Santixabeletako gehigarrian, uztailaren 4rako Hotzikara taldearen kontzertua iragartzen genuen. Desegin taldeak joko du ordea, Trikihots eta Odolaren Mintzoa taldeekin batera. Barka eragozpenak.

Astlehenean hasiko da Udajolas

4 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzenduta dago Udajolas, urtero egiten den udaleku irekia. Datorren astlehenean hasiko da eta uztailaren 30ean amaituko da. Aurten, 100 ume izango dira Udajolasen ibiliko direnak. Ordutegia hau izango da: goizez, 9:30etik 13:30era. Egunero frontoian elkartuko dira.

Zubietako Txokoetan, 2 urtetik 11 urte bitarteko haurrak elkartuko dira. Uztailean eta abuztuan egongo da martxan eta egunero Eskola Txikitari batuko dira. Ordutegia honako hau izango da: 9:30etik 13:30era.



UDAJOLASEN 100 LAGUN
BILDUKO DIRA. ARGAZKIAN, IAZKO
TALDEKO KIDEAK.

Aginagan, uztailaren 1ean hasi eta uztailaren 30ean amaituko da.

Astleheneetik ostiralera, goizeko 9:00ak aldera elkartuko dira eta eguerdiko 13:30ak arte ibiliko dira.

Atez ateko zalantzak argitzen

Zer egin dezaket erabilitako olioarekin?

San Markoseko kamioira eraman behar da, hilaren lehen eta azken asteazkenean herrian, eta laugarren eta azken larunbatetan Urbilen.

Bidali zure galdere helbide honetara:
atezate@usurbil.net
Galde-erantzun guztiak webgunean:
www.usurbil.net/atezate



Usurbilgo
UMEA



Usurbil
URBIL





Santixabelak, egunez egun

EKAINAK 30, ASTEAZKENA

10:30 Haur eta gazteentzako Pintura Lehiaketa (materiala bertan).
13:00 Pintura lehiaketa sari-banaketa.
15:00 Jaietako mural erraldoia egitea.
18:00 Pala Txapelketaren finalak.
23:00 Kontzertua eta dantzaldia txosnetan: U.K.Bill, I can't explain, 3gabe2.

UZTAILAK 1, OSTEKUNA

10:00 Hasiera ekitaldia frontoian.
Goizez kalejira trikitilari gazteekin.
10:00-13:00 Puzgarriak txikienentzat.
10:15-12:30 Molto Grand Prix frontoian (HH mailako umeentzat).
Ginkana erraldoia herrian zehar (LH mailako umeentzako).
Gaztetxoentzako giza futbolina eta talde joko alternatiboa kiroldegi aurrean.

11:00-13:00 Txu-txu trenak.

13:00 Buruhandi eta erraldoiak trikitilariekin.

13:30 Umeen lagunarteko bazkaria (norberak ekarrita, postrea banatuko da).

14:00-17:00 Txu-txu trenak.

15:00-17:00 Puzgarriak txikienentzat.

15:30-17:00 Eidabe taldearen

Atxikistan ikuskizuna.

16:00-17:30 Gaztetxoentzako (10-14 urte) txirrindako zirkuitu bihurria Artzabalen.

16:30-19:00 XX. Igel Joko txapelketa Artzabalen.

17:30 Txokolatada.

18:00 Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.

19:00 Txosnen irekiera eta txaranga.

19:00 Maskota igotzea.

21:30 Herri afaria txosnetan.

00:00 Txupinazoa helduen danborradarekin batera.

Jarraian, dantzaldia frontoian, Laket.

UZTAILAK 2 OSTIRALA

06:00 Oilasko biltzaileen gosaria, irteera.

09:00 Esnadeia txistulariekin.

11:00 Meza Nagusia.

12:00 Umeen danborrada udaletxe aurretik hasita.

Jarraian, lore eta salda banaketa Dema plazan.

12:30 Oilasko biltzaileen itzulera frontoi aldera.

14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria.

15:30 Mus Txapelketa txosnetan.

17:00 Oilasko biltzaileen jokoak.



OSTIRALEAN, EGUERDIKO 12:00AK ALDERA ABIATUKO DA UMEEN DANBORRADA UDALETXEKO PLAZATIK.

18:00 "Zirko dantza eroa" ikuskizuna Artzabalen.

18:30 Herri kirolak. Harri jasotzaileak: Miren Urkiola / Idoia Etxeberria eta Izeta II / Haimar Irigoien. Ondoren, Usurbilgo harriaren aurkezpena.

19:00 Buruhandi eta erraldoiak txarangarekin. Jarraian, Zumartxan txaranga.

23:00 Kontzertua frontoian: Des-kontrol, Arima Sutan, Akatu.

02:00 Platano dantza txosnetan.

UZTAILAK 3 LARUNBATA

09:00 Esnadeia dultzaineroekin.

Egun osoan, dultzaineroak.

09:30 VI. Kayak jaitziera Alirin (Zubieta).

11:00 Kantujira Kuxkuxtu txarangarekin.

11:30-13:00 Gaztelekuko udako Festa: kolore topaketa (margotu daitekeen kamisetak ekarri).

11:30-13:00 Toka txapelketa Artzabal Baserrian.

12:00 Errepresaliatu politikoak Santixabeletara! Kalejira Burdin Klash txarangarekin.

14:30 Kantu-zikiro-jana Askatasuna plazan, Kuxkuxtu taldearekin.

17:00 Zirko tailerra Artzabalen.

17:00 XXXVIII. Pilota Txapelketako finalak.

17:00 "A un toke" txapelketa txosnetan (16 urtetik gorakoentzat). Ondoren, triki-bertsu poteoa (Ane Labaka eta Amaia Iturriotz).

18:30 Buruhandiak dultzaineroekin.

19:00 "Lan baten bila", antzezlanak

Sutegin.

20:00 Omenaldia.

22:30 Bertso-saioa frontoian. A. Arzallus, I. Elortza, B. Gaztelumendi, U. Iturriaga, J. Maia eta J. Uria. Gai-jartzailea: Bota Punttuba. Ondoren, XXXIX. Santixabel Bertso-paper Lehiaketako sari-banaketa.

00:30 Dantzaldia frontoian: Mikel Hats.

UZTAILAK 4 IGANDEA

09:00 Esnadeia dultzaineroekin.

Egun osoan, dultzaineroak.

10:00 VII. Ur-bataioa Oiardo Kiroldegian.

10:00-11:30 Santixabel Bola Txapelketa irekia.

11:30 Zantantzarrak.

12:00 Meza Nagusia.

12:00 Herri kirolak.

Usurbilgo Aizkolarien Txapelketa.

13:00 Herriko dantzarien emanaldia frontoian.

14:00 Jubilatuen bazkaria.

17:00 Patata tortilla lehiaketa txosnetan.

17:00-18:00 Santixabel Bola Txapelketa irekia.

18:00 Herri kirolak. Giza proba: Agiña-Usurbil eta idi-proba: J.M. Olasagasti eta J.A. Telleria.

18:30 Buruhandiak dultzaineroekin.

19:00 Kantaldia txosnetan: Gartxot.

23:00 Azken traka.

23:30 Kubako Deboson musika taldea frontoian.

01:00 Kontzertua txosnetan: Odolaren Mintzoa, Desegin, Trikihots.

Agenda !!

Uztailak 3 larunbata

- Kantu-jira, Kuxkuxtu taldearekin batera. 11:00etan frontoian.

- Uda Festa, Gaztelekuren eskutik, 11:30ean frontoian.

Uztailak 5 astelehena

- Odol-ematea. 19:00etatik 21:00-etara anbulatorioan.

Goardiako farmaziak

Uztailak 1, osteguna

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Uztailak 2, ostirala

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 3, larunbata

Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 4, igandea

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 5, astelehena

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 6, asteartea

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 7, asteazkena

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 8, osteguna

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 9, ostirala

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Uztailak 10, larunbata

Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 11, igandea

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Chucla farmazia (22:00-09:00),

Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)

*Usurbilen, soilik eguerdina arte

Usurbil Cup amaituta, Donosti Cup txapelketari begira dago Usurbil FT

Joan den larunbatean ospatu ziren finaleko saioekin amaitu da Usurbil FT-k antolatutako Usurbil Cup txapelketa. "Oso ondo joan zen gutzia, zoragarri atera zen eta jendea pozik egon zela uste dugu. Errespetu osoz egon ziren ikusleak ere eta jokozelaia ere, une oro errespetatu zuten; txalotzekoa benetan", adierazi dute Usurbil FT-tik. Txapelketa amaieran, bertaratu ziren jokalariei eta entrenatzaileekin argazki handi bat atera zuten frontoi atzean.

Donosti Cup-eko partida batzuk Haranen jokatuko dira

Usurbil Cup amaitu den honetan, hastear da Donosti Cup txapelketa, datorren astelehenean, uztailak 5. Usurbilgo futbol taldekoek bi modutan parte hartuko dute. Batetik, kadete mailako taldeak txapelketan jokatu du. Bestalde, Haranen zenbait neurketa burutuko dira uztailaren 5etik 8ra. Lehenengoa, astelehenean bertan, arratsaldeko 16:30ean. Real de Gandia CF



HARANEN JOKATUKO DIRA DONOSTI CUP-eko PARTIDA BATZUK.

eta usurbildarrak aurrez aurre arituko dira Haranen. Usurbil FT-tik bertara joateko dei egiten diete herritarrei. Futbol zelaiko taberna ere zabalik izango da.

Nazioarteko txapelketa

Usurbildarren hurrengo bi hitzorduak honakoak dira: uztailaren 6 eta 7an arratsaldeko 16:30ean hasita, Oiartzunen Jesuitinas taldearen aurka eta Fanderian British International School taldearen aurka hurrenez hurren.

Pala Txapelketako finala, asteazkenean

EKAINAK 30 ASTEAZKENA, 18:00h

1. partida: ezinduen pala partida bat.
2. partida: emakumezkoen arteko pala partida bat.
3. partida: gizonzkoen pala txapelketako finala:
Xabier Errasti - Manuel Galarraga-
Iñaki Errekondo - Haritz Harreguy

Usurbilgo Pilota

Txapelketako finalak

UZTAILAK 3 LARUNBATA, 17:00h

Jubenilak

Ornoz-Labaka - Santxo-Aizpitarte
(Bidegoian) (Usurbil)

Nagusiak

Arribillaga-Loiola - Apezetxea-Landaburu
(Elgoibar) (Bidegoian)

BENTA TABERNA
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

ETXEBIZITZA

- 2 gela handiko eta 2 komunetako duplex berria (2003koa) salgai Orion, 80mts. herriaren erdialdean. Igogailua eta trasteroa eta oso argitsu da. 279.000 euro. Tf: 652 73 78 64
- Bikote batek pisu bat alokairuan hartuko luke Usurbilen. Tlf: 943 573 857 edo 603 131 645.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukalde-sala. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Gizonezko langile edo jubilatu batentzat gela bat alokatzen da Usurbilgo kaxkoan prezio eta baldintza onetan. 687348223 edo 943364310.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. Nire telefono zenbakia: 648 005 159.
- Apartamentu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan. 2 gela, sala, sukalde, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitua. Tf: 686 969 112.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gautan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetako egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursaillean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserrri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santueneka 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukalde handia, etxeak kanpokalde- ra ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartititua batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berri berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- 2006ko Ford Transit Td/240s Kombi6 salgai. Ioseba 669 074 698.
- Taxi lizentzia bat salgai Usurbilen. Interesatuak Gipuzkoako Taxi Elkartearen eskura dezake informazio gehiago eta egin beharrekoeak 943 46 54 98.
- Txaramunto auzoan garaje itxi bat alokatzen da 80 eurotan. Interesatuak deitu: 667715075.
- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauzka, ondo zaindua, beti garajeen egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altibo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajeen, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Arisitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-eskaera

- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratze-ko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Esperientziadun arkitekturea ikaslea udan zehar klase partikularrak emateko prest legoke 10-17 urte bitarteko gazteei. Tlf: 628 06 54 70
- Neska gazte bat eskaintzen da udaran zehar klase partikularrak emateko, LH eta DBH mailak. 630 642 352.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsalde, baita jende nagusia edo gazteak orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko prest: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Astebukaeratan edo asteen zehar goizeko 10:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egingo nuke. Interesatuak deitu 618410123
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835

- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakume interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Plastiko txuri batean sartutako artazi batzuk (ardiei ilea mozteko gorazeak) galdu ditut Alkartasuna kooperatiba eta Artzabal artean. 648191911
- Haurren bixera gorri bat aurkitu genuen ekainaren 10ean, Atxegaldetako bidean. Galdu duenak deitu edo galde dezala udaltzaingoa.
- Manta berde bat galdu genuen ekainaren 10ean, Bizkarretik Santuenerako bidean. 943 360 285.
- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formoan. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; auklari, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebete behorra. Tf: 626 220 925.



Jakin dugu uztailaren 3an jaio zinela Usurbilen, Jaione. **Zorionak ama,** asko maite zaitugu! Eta Usurbilgo familia osoak ere bai!

Jaiotzak, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasoak. Zorion-agurrak, hildakoak, oharrak... NOAUA!ra ekartzeko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan. E-postaz: erredakzioa@noaua.com

KALITATERO
EUSKAL
OKELACARNE DE VACUNO
DE CALIDAD
DEL PAIS VASCOBehoko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42ALKORTA
AUTOZERBITZUAFrutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuakteilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU

943 69 68 52 · 620 800 186

EDERTU ZAITEZ!

Loli Lizarralde
Ileapaindegia • Estetika Zentroa

L'ORÉAL PROFESSIONNEL

INOA
Kolorazio sistema berria!

Amoniakorik gabe
Usanik gabe
W100 ile zurian estalketa
Ileo arripetatzen eta babesten du
Beruko lantzeazalean arrosotasuna

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971

TATTOO ETA PIERCING

Jwar
ESTETIKA

MIKROPIGMENTAZIOA

munalurra 2, Usurbil 943 571 680

LOURDES LARRAÑAGA
ESTETIKA ZENTROA

- Eguzkirik gabe beltzarandu.
- Solarium-a (etzanda)
- Gelekin azkazalen luzapena
- Betileen tintaketa eta permanentea
- Aurpegiko tratamenduak
- Makilajea, manikura, pedikura
- Fotodepilazioa
- Opariak, zorroak, nezeserrak...

Irazu kalea, 12-behea ☎ 943 362 887

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu *Alisi Bronte*

INTZA
WELLA ILEAPAINDEGIA
PROFESSIONALS

Eguerditan irekia! Nagusia 8, 943 36 36 41

Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta Etzandako Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

mistoa

Kolorazioetan teknika berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 1 ☎ 943 361 851